



## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ikastetxea:	IKASBIDEA IKASTOLA	kodea:	010012
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila:	DBHO2
arloa/irakasgaia:	<b>ESPAINIA ETA EUSKAL HERRIKO HISTORIA</b>		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	-Hizkuntza eta literatura komunikatzeko kompetentzia -Matematikarako kompetentzia -Zientziarako kompetentzia: -Teknologiarako kompetentzia -Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia -Arterako kompetentzia -Kompetentzia motorra		
irakasleak:	Puy Garcia Tartas Ainhoa Villaverde	ikasturtea:	2022-2023

### Zeharkako kompetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia..

helburuak	ebaluazio-irizpideak
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Espainiar eta Euskal historia osatzen duten prozesu azpimarragarrienak jakitea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.</li><li>2. Oinarrizko kontzeptu eta termino eta oinarrizko teknika historikoak egokiro erabiltzea.</li><li>3. Lehen eta bigarren mailako iturri historikoak interpretatzea eta zuzentasunez eta objektibitatez iruzkintzea eta lehen eta bigarren mailako iturri historikoek betetzen duten zeregina balioestea.</li><li>4. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariak hainbat arrazoi izan ditzaketela.</li><li>5. Ikasgaiaren edukiak egokitasunez adieraztea eta jakinaraztea, hau da, zuzentasun ortografikoaz, zehaztasunez eta gaiaren hiztegi espezifikoa erabiliz.</li><li>6. Egungo gizartean dauden eta Euskadiko eta Espainiako iragan historikoarekin</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.<ul style="list-style-type: none"><li>• Garai historikoen ezaugarri ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak bereizten ditu eta ezaugarri horien elkarrekiko eraginak azaltzen ditu.</li><li>• Etapa historikoen laburpena/sintesia egitean, harremanetan jartzen ditu alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak.</li><li>• Kontzeptu eta terminoen izaera ekonomikoa, soziala, politikoa...bereizten ditu, eta alor horietako beste kontzeptu eta termino batzuekin lotzen ditu.</li><li>• Iturriek eta egileek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu.</li></ul></li><li>2.<ul style="list-style-type: none"><li>• Dagokien garaian kokatzen ditu kontzeptu eta termino nagusiak, eta behar bezala ezartzen ditu horien arteko loturak.</li></ul></li><li>3.<ul style="list-style-type: none"><li>• Lehen eta bigarren mailako iturriak komentatzen eta interpretatzen ditu, eta aurretik dakienarekin uztartzen du horien informazioa.</li><li>• Zer iturri mota darabilen eta zer ezaugarri nagusi dituen antzematen du.</li><li>• Iturriek adierazten duten garaia, haien egileak, hartzailak, asmoak eta gainerako alderdiak identifikatzen ditu.</li><li>• Agiri jakinek historiako gertakariak eta prozesuak ezagutzeko egiten duten ekarpena ondorioztatzen du.</li><li>• Ikasitako garai historikoetan ageri diren kontzeptu eta termino historiko nagusien definizioa ematen daki.</li></ul></li></ol>



zerikusia duten gai garrantzitsuei buruzko norberaren ikuspuntuak arrazoitzea eta argudiatzea.

- Iturri historikoak aztertzeko prozesuari erreparatuta, ulertzen du historiaren gaineko jakintza etengabe berregiten ari dela.

- Iturriek eta egileek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu.

4.

- Gertakari eta prozesu historikoen eta sozialen kausak ezagutzen eta sailkatzen ditu.

- Gertakari edo prozesu historiko nabarmenetan eragiten duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, zer izaera duten zehatzen du eta loturak ezartzen ditu haien artean.

- Gertakari eta prozesu historikoen epe laburreko, ertaineko eta luzeko ondorioetako batzuk zehatzen ditu.

- Kausa-efektuko harreman-kateak egiten ditu segidako hainbat gertakari edo egoera historikoren artean.

5.

- Informazioa argi eta txukun antolatuta ematen du, arloko hiztegi berariazkoa erabilia.

- Akats ortografikorik gabeko idatzi zorrotzak egiten ditu, gaiaren hiztegi espezifiko erabilia.

- Adierazpen modu egokiena hautatzen du, edukiari eta hartzaileari erreparatuta.

6.

- Modu arrazoituan azaltzen ditu idatzietan Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan albiste diren gaien inguruan duen iritzia.

- Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan den pluralismoa identifikatzen eta errespetatzen du.

- Giza eskubideak elkarbizitzarako oinarrizko markotzat onartzen ditu; Euskal Herriaren oraintsuko eta gaur egungo historian gertatutako urraketa-egoerak baloratzeko erabiltzen ditu.



**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

<p><b>1. GAIA. Antzinako Erregimenaren krisialdia (1808-1814): Cadizko Gorteak eta 1812ko Konstituzioa (8 ordu)</b></p> <p><b>2. GAIA. Estatu liberalaren eraikuntza eta finkapena (1834-1874) (8 ordu)</b></p> <p>.....</p> <p><b>3. GAIA. Foruak eta liberalismoa: Karlistadak eta foruak indargabetzeko prozesua (1833-1876) (8 ordu)</b></p> <p><b>4. GAIA. Errestaurazioko sistema politikoa (1875-1923) (8 ordu)</b></p>	33	32	<p><b>5. GAIA. Diktadura frankista Euskal Herrian (1939-1975) (8 ordu)</b></p> <p><b>6. GAIA. Langileen mugimendua eta nazionalismoa Euskal Herrian (1890-1923) (8 ordu)</b></p> <p>.....</p> <p><b>7. GAIA. Bigarren Errepublika: 1931ko Konstituzioa eta erreformak (1931-1936) (8 ordu)</b></p> <p><b>8. GAIA. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila Euskal Herrian (1931-1939) (8 ordu)</b></p>	39	<p><b>9. GAIA. Estatu frankistaren sorrera (1939-1959) (10 ordu)</b></p> <p><b>10. GAIA. Diktadura frankistaren finkapena eta krisialdia (1959-1975) (10 ordu)</b></p> <p>.....</p> <p><b>11. GAIA. Diktadura frankista Euskal Herrian (1939-1975) (10 ordu)</b></p> <p><b>12. GAIA. Trantsizioa (1975-1982): 1978ko Konstituzioa eta 1979ko Gernikako Estatutua (9 ordu)</b></p>
--	----	----	---	----	---

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Erabiliko den metodologia ikasketa erreflexiboa eta esanguratsua lortzeko bideratuko da. Ikasleen papera aktiboa eta parte-hartzailea lortzen saiatuko da. Azalpenak eta ikasleen lanak tartekatzen joango da. Ikasleen lana, bereziki testu iruzkinak egiten, selektibitateari begira arlo garrantzitsua baita.

Gaiaren aurretik irakasleak egingo duen aurkezpenarekin ikasleak garaian eta tokian kokatuko ditu. Hemen lehenengo ikuspegi orokorra eman nahi zaie. Banakako galdeketa edo talde osoari egindako galderen bidez ikasleek dituzten aurretiazko ezagutzak ikusiko da.

Atal guztiak landu ondoren, gaia bukatzen denean, irakasleak gai osoa errepasatuko du, ideia nagusiak bilduz. Horretarako gaiari dagokion mapa kontzeptualaren bidez lagunduko da.

Gaiaren ideiak finkatzeko edota ikasleak garaian girotzeko hainbat dokumental ikusiko dute ( "Memoria de España",...)

Aurten IKTen erabilera indartuko da, eta eguneroko lanean presente egongo dira eskaintzen zaizkugun baliabideak: gmail, drive, classroom, youtube, eta abar.



EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p>Azterketak USEko ereduari jarraituko dio eta baloratzeko EHUtik erabiliko den txantiloia izango da. Bi atal izango ditu: <b>garatzeko galdera eta testu iruzkin bat</b>.</p> <p>Adierazpena oso garrantzitsua denez kontuan hartuko da azterketen balorazioan. Halaber, faltak, zirriborroak, idazkera, argitasun falta... ere islatuko da notan.</p> <p>Proiektuak: ebaluazio bakoitzeko bat: kontzeptuen ulermenarekin lotuta, ahozotasuna lantzeko, talde lanak sustatzeko edota komunikazioa hobetzeko.</p> <p>Asteketatuz gain, ikasleek egiten duten ahalegina baloratuko da, laguntza behar dutenean eskainiz eta hobetu dezaketen lanak berregiteko aukera emanez, beti ere</p>	<p>Erabiliko den kalifikazio balio portzentuala hauxe izango da:</p> <p><b>Kontzeptuak: %90</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <b>Azterketak</b></li><li>● <b>Proiektuak</b></li><li>● <b>Bakarkako lanak</b></li><li>● <b>Taldeko lanak</b></li></ul> <p>Azterketa gaindituz gero, lortutako nota errespetatuko zaio, beste notak ebaluazio nota igotzeko baliogarriak izango dira.</p> <p>Egiten den lan guztia kontuan hartzeko azterketaren nota ezin da 3 baino baxuagoa izan.</p> <p>Kontzeptuen atalaren nota 10 punturen gainean baloratuko da. Ebaluazioa gainditzeko 5 batera ailegatu behar da burutzen diren ekintza bakoitzeko balioa kontuan hartuz.</p> <p>Zeharkako konpetentziak, elkarbizitza gaitasuna %10: Ikasle bakoitza 10eko notarekin hasten da eta hortik gutxitu egingo zaio nota gaitasun hori ez badu elkarbizitza arauak errespetatzen.</p>
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
<p>Ebaluazioak berreskuratu ahal izateko gutxienezko helburuak bete beharko dira. Irakasleak laguntza berezia eskainiko die berreskuratu behar duten ikasleei: beraiantzako indartzeko baliabideak edo ariketak, azalpen bereziak...</p> <p>-Suspenditutako ebaluazioak berreskuratu ahal izango dira ebaluazio bakoitzaren ondoren. Nola? Ikasleari 5era iristeko falta zaizkion puntuen arabera, aukera ezberdinen artean hautatu ahal izango du: Berregin gainditu gabeko lanak edo beste azterketa bat egin dezakete.</p> <p><b>OHIKOA Nota:</b> 3 ebaluazioen batz besteko nota izango da, baina horretarako ebaluazio guztiak gaindituta egon behar dira. Borobilduko da goruntz beti.</p> <p><b>Nota igotzeko prozesua:</b> nota igotzea nahi duen ikaslea ohiko deialdira joan daiteke.</p> <p><b>EZOHIKOA:</b> Ezohiko azterketan irakasgai guztiko azterketa egin beharko da eta lortuko den gehieneko nota 5 izango da.</p> <p><b>Pendienteen trataera:</b> Ikasleren batek irakasgaia gainditzea pendiente badu, <u>bi deialdi</u> izango ditu, <u>Ohikoa</u> eta <u>Ez Ohikoa</u>:</p> <p><b>OHIKOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>· Azterketa bat egin beharko da ikasturte erdialdean. Azterketa hori egiteko galdetegi bat emango zaio ikasleari eta horrekin azterketa prestatu ahal du. Galdetegia eginda entregatzea nahitaezkoa izango da azterketa hori egin ahal izateko.</li></ul> <p><b>EZ OHIKOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>· Ikasleak irakasgaia OHIKO deialdian gainditzen ez badu EZ OHIKO deialdia izango du. Irakasgai osoaren azterketa egingo da deialdi honetan eta bertan gehienez atera daitekeen nota 5 izango da.</li></ul>	



## OHARRAK / OBSERVACIONES

Eskatuko diren gutxieneko elkarbizitzarako jarrera egokia<sup>1</sup> hauek izango dira:

1. Errespetua eta Ikastetxeko funtzionamendu arauak betetzea (Gida didaktikoa).

2. Klaseetan parte hartzea:

- Jarrera aktiboa eta positiboa (ez hitz egin, trabarik ez egin, arreta ikaskideei, irakasleari, ...)
- Lan pertsonala egitea.
- Talde lanetan parte hartzea.
- Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
- Lanen eta jardueren epeak betetzea.
- Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
- Egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
- Irakasle eta ikasleekiko errespetua.
- Elkarrizketa eta debateetan jarrera baikorra.
- Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.

Batez ere puntu hauek kontrolatuko dira eta zuzendaritzari horien berri emango zaie bertaratze parte desegokien bitartez:

- Mugikorra klasean erabiltzea (ezin da ez entzun ez ikusi).
- Hardware eta softwarearen erabilera txarra.
- Ikasgeletan jan edo edan.
- Errespetu falta irakaslearekiko edo ikasleekiko.